



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko martxoaren 1eko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2022ko martxoaren lehenean, zortziak eta erdietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregulartasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : CASIRIAIN Elena, HEGUY Antton

Bilkurako idazkari izendatua izan da : FALXA Odile

Deialdiaren eguna : 2022ko otsailaren 25a

Afitxatze eguna : 2022ko otsailaren 25a

16. ERABAKIA: DENENDAKO GELA ETA JANTEGIA ALOKATZEKO PREZIOEN ALDAKETA

Jaun auzapezak herriko kontseiluari adierazten dio 2007/04/05eko erabakiak denendako gela alokatzeko prezioak finkatu dituela. Kontseiluari proposatzen dio prezio horiek aldatzea eta gela eta jantegia alokatzeko prezio bat sortzea.

Prezioen proiektua ondokoa da:

	Denendako gela	Jantegia
Tokiko elkarteak: - bilkurak, zintzur bustitzeak, ohorezko hurrupaldiak, askariak, krakadak, bazkari-afariak	Urririk	Urririk
Herritik kanpoko elkarteak: - bilkurak - zintzur bustitzeak, ohorezko hurrupaldiak	Urririk 50€	----- -----
Tokiko partikularrak: - zintzur bustitzeak, ohorezko hurrupaldiak, askariak, krakadak - bazkari-afariak	40€ 100€ + 150€ko bermea	250€ + 250€ko bermea

Herritik kanpoko partikularrak

- zintzur bustitzeak,
ohorezko hurrupaldiak,
askariak, krakadak
- bazkari-afariak

50€

150€ + 150€ko bermea

Herriko kontseiluak, auzapezaren azalpenak entzun ondotik eta eztabaidatu ondotik, **ONARTZEN DITU** gorago aipatutako prezioak.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balizko boz kopurua : 13

ALDE : 13

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEN, 2022ko martxoaren 1ean
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2022/03/14an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/03/14an.

